

ERABAKIAK
JAUZIAK

GEROA GORRIRA EKARRI


2004 • IRUÑEA



6.

biltzar nagusia

Kudeaketa txostena



Zbkia

TXT 20175

DOKUMENTAZIO
ZENTROA

Kudeaketa txostena

Aurkibidea

1. Biltzarren arteko zikloa eta egungo testuingurua

- 1.1. Eremu soziopolitiko
- 1.2. Eremu ekonomiko eta sindikala

2. Interbentzioaren balantzea

- 2.1. Gogoeta orokorra eta LABen eragina eremu sindikalean eta sozio politikoan
- 2.2. Interbentzio soziopolitiko
- 2.3. Ekintza sindikala

3. Egitasmoaren hedapena eta antolakuntzaren garapena

- 3.1. Egitasmoaren hedapena
 - 3.1.1. Sindikatu nazionala
 - 3.1.2. Afiliazioa
 - 3.1.3. Ordezkaritza sindikala
- 3.2. Antolakuntzaren garapena
 - 3.2.1. Gogoeta orokorra
 - 3.2.2. Zuzendaritza
 - 3.2.3. Lurralde egitura
 - 3.2.4. Sektore egitura
 - 3.2.5. Hauteskunde sindikalak
 - 3.2.5. Arloak eta kabineteak

4. Balorazio orokorra

1. Biltzarren arteko zikloa eta egungo testuingurua

1.1. Eremu soziopolitiko

Sindikatuaren esku hartzerako eta lanerako garrantzi handia duten kanpoko eta barruko faktoreek eragina izan dute biltzarren arteko testuinguruan.

Nazioarteko eszenatokian, AEBko makineria neoliberalak eraso hedatzailea piztu du, bere boterea eta eragin ekonomikoa bermatzeko. Harriduraz ikusi dugu nola, XXI. mende hasi berri honetan, AEBko Administrazioa buru zuen kapitalismo basatiak gerrak, inbasioak eta egonkortasunik ezeko egoera eragin eta garatzen dituen, helburu bakarrak: bere interes ekonomikoek mundu mailan funtzionatzea eta gero eta indartsuagoak izatea. Hau da, herrialdeak politikoki eta ekonomikoki mende hartzea, nazioarteko legeei eta NBEari ere jaramonik egin gabe.

Herrialdeak eta kulturak kriminalizatzeko estrategia mediatikoaren atzean, irismen handiko ez-egonkortasun politiko eta ekonomikoa ikusten ari gara, eta horren emaitzek datozen urteotarako nazioarteko harremanetan susmaezineko ondoreen boomeranga eragin lezakete.

Makineria neoliberalak gero eta merkatu gehiago, gero eta lehengai gehiago behar ditu hedatzeko bere afanean, eta AEBko estrategia militarra horren arabera erabakitzen da. Logika faxistaren aurrean gaude, zeinen bidez globalizazio neoliberalak XXI. mendeko diktadura politiko-ekonomiko global bihurtzen den.

Egoera honetan, Espainiako Gobernuak bere jarrerak balioztatu nahi izan ditu eta, bereziki, Euskal Herriaren borrokak markatutako "barruko arazoan", AEBren abalak eta konpromiso politiko eta polizialak sendotu nahi izan ditu. Azoreetako argazkiak zerikusi handia dauka barruko krisi handia pairatzen ari zen Espainiako Gobernuak barruko bere politikari buruzko jarduera ildo guztietan abalatu sentitzeko zuen beharrarekin (errepresioa eta neurri faxistak ezker abertzalearen eta euskal nazio egitasmoaren aurka).

Martxoaren 11ko gertakariak eta ondorengo hauteskundeetako emaitzek suntsitu dute PPren politika gerrazale eta harroputza eta, Euskal Herriari dagokionez, 98. ean irekitako prozesu politikoaren bila-kaerak, Estatu Espainiarrean Autonomien Estatutua pairatzen ari den krisia areagotzeak eta Frantses Estatuan deszentralizatzeko prozesua zabaltzeak markatuta segituko duen etapa politikoa ekarri dute.

Euskal Herriaren borrokari dagokionez, gogoan izan behar dugu 5. Biltzarrak (2000) panorama gogor eta zaila utzi zigula, eremu abertzalean konpromisoak eta akordioak hautsita, eta PPren ofentsiba polizial, judizial eta mediatikoa areagotuta. ELAk, alor sindikalean zein alor soziopolitikoan elkarrekin egingen ari ginen lana geldiarazteko hartu zuen erabakiak ere markatu zuen eszenatokia.

Ezbairik gabe, kanpoko eta barruko faktore guztiak kontuan hartzen baditugu, lau urte hauek LABen urterik gogor eta garrantzitsuenak izan dira, 3. Biltzarra egin genuenetik. Aldaketa politikoko une batean, ezker abertzalearen multzoak 98. urtean hasitako prozesua atzeraezin bihurtzeko eta, horrekin, nazio, burujabetasun eta aldaketa sozialeko estrategiarako erreferentziak, sinesmenak eta bitartekoak sendotzeko ahaleginak markatutako abagunean, LABeko gizon eta emakumeok irekitako prozesu oro-

kor horretara zentzuzko eta nortasunez beteriko ekarpenak egiten jakin dugu.

Estatuen erasozko erantzuna eta indar politiko, sindikal eta sozialak aldaketa politiko eta sozialeko estrategian bideratzeko prestutasunak markatu dute LABen jarduera, eta ordezkaritzan gora egiteaz gain, gure sindikatua euskal jendartearen aurrean zilegitasun eta prestigiodun eragile sozial gisa eratzuz joan da. Erakunde bizia, erreferentea eta etorkizuna duena.

Euskal Herriak bizi duen prozesu politikoan LAB horrela ikustea ezker abertzalearen erresistentzia eta ahalegin kolektiboei lotu behar zaie. Aldaketa politikoko une garrantzitsuak bizitzen ari gara, eta Euskal Herriaren garaia iritsi dela uste dugu, gure herriari izaera aitortuko zaionekoa, eta euskal herri-tarron borondatearen errespetua funtsezko erreferentzia izango duten oinarri demokratikoak berrezarriko direnekoa.

LABen historia Euskal Herriak bere eskubide politikoen alde daraman borrokaren historia da, euskal langileriaren defentsan hartutako konpromisoa da. Borroka horretan ikasi egin dugu, hazi egin gara. Barre egin dugu, sufritu eta negar ere egin dugu. Lagun eta burkide asko utzi ditugu borroka horretan. Bedi, bada, aukera historiko hau horientzako guztientzat eta espetxetik, erbestetik eta deportaziotik Euskal Herri berriaren alde borroka egin duten eta oraindik borrokan ari diren denentzat gure omenaldirik onena. Azkeneko hiletan Tito Elkoro-Iribe eta Jon Solagurenbeaskoa, Nazio Komiteko kideek, eta Joselu Cereceda, sindikatuko militante historikoak aipamen berezia merezi dute.

Beraz, biltzarren arteko ziklo hau ikaragarri gogorra izan da: legez kanporatzeak, atxiloketa masiboak, egunkariak ixteak, erasoak euskarari, abertzaletasunaren kriminalizazioa... baina, hala ere, bidea eginenez joan gara eta 6. biltzarrari ekingo diogu, non, irudikeria eta igurikapen faltsurik gabe, LABetik, indarrez eta sinistuta, ziklo politiko bikoitzaren aldeko apustua egin baitezakegu:

- a) Konponbide, bake eta normalizazio politikoko zikloa, Euskal Herriaren eta bere eskubide politikoen errespetuan oinarritua
- b) Espazio politiko independentista eta klasekoari arian-arian forma emanaz joateko zikloa. Pisu instituzional eta soziala hartuz joan dadin espazioa, aldaketa politiko eta sozialen prozesu dinamikoan gure helburu estrategikoetarantz: Independentzia eta Sozialismorantz.

1.2. Eremu ekonomikoa eta sindikala

Biltzarren arteko tartean, ofentsiba neoliberalak Estatuak beren politika ekonomiko eta sozialetan aplikatzen ari diren pribatizatzeen eta murrizketa sozialen politiketan eragina izaten jarraitu du. Horren ondorioz, desberdintasunak eta gehiengo sozial langilearen jendarteko babesik eza areagotu dira.

Ipar Euskal Herrian egoera ekonomikoaren bilakaerak kezkarria izaten jarraitzen du. Lapurdi eta Zuberoako enpresa garrantzietako krisiak herrialde horietako garapen ekonomiko jada hondatu eta baldintzatua areagotzen du. Horrek, oinarritzko edo lehendar sektorearen egiturazko arazoekin batera, Euskal Herriko erakunde eta eragile sozio-ekonomiko guztiak jabetu behar direneko egoera larria sortzen du.

Hego Euskal Herrian, hazkunde ekonomikoak alde ilun ugari dauka edo, bestela esanda, jendarteari argi aurkezten ez zaion soslaia: aberastasuna gero eta desberdintasun handiagoz banatuta dago, edo desoreka sozialak gero eta handiagoak dira. Sistemako ekonomiariek eta erakundeetako eledunek

Kudeaketa txostena

2004ko maiatzaren 21 eta 22an. Iruñea

baliatzen dituzten aldagai ekonomikoen atzean langabeziaren, prekariotasunaren, bereizkeriaren, pobrezia eta jendarteko bazterkeriaren datuak daude, enpresariak eta botere politikoak zer-nolako politika sozio-ekonomiko eta enplegu politika sustatzen duten argi eta garbi adierazten dutenak. Hau da, hazkunde ekonomikoa dago, batez ere produktibitatearen eta patronalaren mozkinen pilaketaren kla-beetan garatua.

Hamarkada batean %25eko langabezia tasatik %9ko tasara (%6 gizonak eta %12 emakumeak) igaro den herrialdean bizi gara. Baina langabeziaren murrizketa horrek, hazkunde ekonomikoko ziklo batean, prekariotasuna esplotazio bitarteko modura erabili dela esan nahi du. Egun, prekariotasuna, birkontratzea, lana kanporatzea eta sasi-autonomoak enpresariak mozkin handiak sakelaratzeko erabiltzen dira, batez ere gazteak, emakumeak eta etorkinak lan baldintza onartezinetan, mugarik gabe eta erakunde inolako oposizio gabe endekatuz doazen baldintzetan lan egitera behartuz. Herri administrazioak beraiek dira, izan ere, pribatizatzearen eta birkontratatzearen bidez, prekariotasunaren eta lan baldintzak hondatzearen garapenean abangoardia izaten ari direnak.

Lan merkatuaren aldarazpen nabarmen hau, biztanleria aktibo langilearen erdia baino gehiago langabe edo lan prekariotan duela, sindikalismoaren jardura baldintzatzen ari da, eta errealitate horri modu eragingarrian erantzun diezaion ekintza sindikalaren definizioa da LABek Biltzar honetan duen erronkarik garrantzitsuena.

Bestalde, kezka ikusten dugu multinazionalen eta industria enpresa handien jardura ezaugarritzen ari den estrategia. Merkatuak hautematen duten edozein zalantza aurrean enpresa horiek neurri zorrotzak planteatzen dituzte langileen aurka enpleguari zein lan baldintzei dagokienez, lekualdaketen edo itxieraren mehatxupean. Langileek merkatuaren mugimenduen ondorioak ordain ditzaten nahi dute. Volkswagen, ACB, Babcock, Naval, Mercedes, Cabot, Winkler, Ericsson, Newell... enpresen kasuak, eta enpresa txiki eta ertainetan dituzten ondoreak are larriagoak dira mozkinak dituzten enpresak direla eta, sarritan, dirulaguntza publikoak jasotzen dituztela kontuan izaten badugu.

Beraz, gure esku hartzea garatu deneko testuinguru ekonomikoa, lan eta jendarte testuinguruak enpresariak eta administrazioen errezeta neoliberal eta lan merkatua desegituratzeko neurrien bidezko ofentsiba handiak baldintzatuta segitzen du. Klase pultsu horretan, euskal sindikalismoak, 1999ko maiatzeko grebaren deskapitalizaziotik, defentsa jarrerari eusten die eta ez da, negozio kolektiboaren eta, oro har, ekintza sindikalaren bidez, ofentsiba neoliberal hori baldintzatzeko gai izaten ari.

2000ko lehenengo hiletatik ekintza batasuna eten izanak, edo 2002ko urtarrilean ELA eta ESKren akordioarekin izandako instrumentalizazioak, atzerako pausua ekarri du patronalaren joeraren aurka indarrak pilatu eta aktibatze ezinbesteko lanean. Gaur, borrokarako arrazoi objektiboak eta handiagoak izanik ere, ageriko zailtasunak izaten segitzen dugu lan harremanetan elea eta boterea irabazteko, eta langilearen mugimenduaren interesak klase norgehiagokaren bidez tinkotasunez defendatzeko.

Euskal patronalaren bilakaerari dagokionez – Confebask, CEN eta Medef – esan behar dugu, enpresetan desegituratzeko daramaten ofentsibaz harantzago, instituzionalki Euskal Herriko aldaketa eta burujabetzaren aurka dauden sektore politiko eta sindikalekin lerratzen ari direla. Gure herriaren hegoaldean patronala, publiko eta pribatua, ideologikoki asimilatuta eta etsita daudenez, kudeaketako sindikalismoko sistemari eta patronalari laguntze hutseko ereduari jarraitzen dioten CCOO eta UGTren laguntza eta lankidetzak izaten ari da.

Testuinguru kokatzeko ibilbide txiki honekin batera, klase norgehiagokan funtsezkoak diren aldagaien bilakaera negatiboaz jabetzen garen arren, klaseko sindikalismo soziopolitikorako ahalbideak adierazi

nahi ditugu, hau da, LABek, ekintza batasunaren bilakaeraren barruan, lan harremanetan sortutako aldaketei egokiro molda dakion norgehiagokako eredu sindikala jorratzeko dituen ahalbideak.

2. Interbentzioaren balantzea

2.1. Gogoeta orokorra eta LABek eremu sindikalean eta soziopolitikoan daukan eragina

Oro har, guk uste dugu sindikatuak jarduera zentzuzkoa eta zuzena izan duela Donostiako Kursalean izandako 5. Biltzarraren ostean izandako abagune gogor eta zailaren esparruan. Pixkana nazio soslai hartuz joan den esku hartzea izan da, bai ezarpenaren aldetik bai lan sindikalaren aldetik, Ipar Euskal Herrian.

Eremu abertzalean konpromisoak hautsi, ELAren ekintza batasuna eteteak, eta ezker abertzalearen eta beste jendarte eta kultura mailako alor batzuen aurka izandako errepresio ofentsiba ikaragarriak sortutako galdera eta zalantza politikoek eragina izan dute sindikatuaren barruko eta, ezinbestean.

Barrura begira, testuinguru politikoak sindikatua iritzi eta jarrera politiko desberdinez elikatzen du, denok LABen egitasmoaren garapenean dugun ustetik eta konpromisotik orokorrean bideratzen jakin duguna. Sindikatua gai izaten ari da, gogoeta eta ñabardura politiko desberdinak kontuan hartuta, eremu sindikalean, Ezker Abertzalearen antolakuntza erreferentzia modura eusteko, arazoak arazo. Kapital hori, gure 2. Biltzarrekin Ezker Abertzaleak jasandako gorabehera edo egoeren gainetik mantendu duguna, funtsezkoa da orain denon erronketako bat independentziaren aldeko erreferentzia politiko eta antolakuntzazkoa, eta nazio prozesu burujabearen motore izango den aldaketa sozialekoa berriro artikulatzea izango deneko zikloari ekitean. Eta horretan, LABek, gure ustez, asko eman dezake.

Gure eredu sindikalaren garapenari dagokionez, lau urte hauek nolabaiteko "gelditzea" ekarri dute 4. Biltzarrean ekin genion eredu sindikalaren birmoldaketan. Pultsu politikoa nagusi izan deneko abagunean, sindikatuak ez du gure izaera soziopolitikoren eta klasekoaren nortasun ikurrei dagokien ekintza sindikaleko ereduan metodoz eta sinesmenez sakontzen jakin.

Militantziak gorabeherak izan ditu alde batetik ekimen orokor politiko eta sindikalen kezka eta interesen eta, bestalderetik, esku hartze mikrosindikalaren artean, eta tartean hutsunea geratu da, beharrezkoak diren gogoeta ideologiko, tinkatze eta esku hartze sozioekonomikorik gabe, zuzendaritzatik egoera modu egokian bideratzeko jakin ez delarik.

Horren guztiaren ondorioz, zalantzan jarri bako boteredun patronalaren aurrean etsipenerako joerak garatuz joan dira eta, gure izaera soziopolitikoaren ildotik, gure gogoeta eta esku hartze ekonomikoek izan behar dituzten freskotasuna eta sormena galduz joan direla hauteman da. Oro har, esan dezakegu ez ditugula beharreko hausnarketak egin, ez ditugula ofentsibazko sindikalismoa, eta klase norgehiagokakoa, eta administrazio publikoek bultzatzen dituen politika ekonomiko eta sozialak garatzen den arabera antolatutakorako behar diren ahalegin teorikoak eta esku hartzeak abian jarri.

Hartara, bada, gauza asko ondo egin ditugula uste dugun arren, sindikatua tratatuta geratu da bere esku hartze sindikal eta sozio-ekonomikoan. Edo ez gara, behinik behin, gure ekintza sindikala patronalak eta administrazioek lan merkatuan eragin dituzten aldaketa handietara eraginkortasunez berregokitzeko gai izan. Erreferentzia orokor honek ez du zerikusirik izan ekintza sindikalaren batasunaren lau urte hauetako egoerarekin eta, beraz, kanpoko baldintzekin loturarik ez daukaten konnotazioak dauzka.

Horren haritik, gogoratu behar dugu biltzarren arteko prozesu honetan bi fase desberdin izan direla lankidetzaren inguruan. Hausturaren edo oso indar gutxiko elkarlanean lehenengo fasea, ELA eta ESKk, 2002ko urtarrilean, negoziazio kolektiborako LABen aurka egindako akordioaren ondoriozko krisi larriko unez zipriztinduta eta, bestea, 2003ko otsailetik aurrera, non gai sindikal eta soziopolitikoaren arloko akordio eta konpromisoek une hauetan garatzen jarraitzen duen etapa markatu duten.

Aipagarriak dira LABek 2001eko apirilean Gernikan jendaurrera atera zituen gogoetak, gehiengo sindikalari lankidetzaren garapenetik ziklo soziopolitiko berrian parte hartzeko deialdia luzatuz. Erreferentzia hori, ordez, ez zen, 2003ko otsailera arte mamitzen hasi, ekimen orokor garrantzitsuen ondorioz gauzatu den negoziazio kolektiborako akordioarekin: lanuzteak eta ekintzak Egunkariaren itxieraren aurka; 2003ko Aberri Egunaren inguruko gogoeta; 2003ko maiatzaren 1a, "demokrazia, justizia eta autodeterminazioa" aldarrikatuz; Bergarako proposamenaren filosofia babestea; manifestazioa eta ekitaldia Euskaldunan, Lan Harremanetarako Euskal Esparrua eskatuz, burujabetzazko estrategia baten barruan; azkenik, 2004ko maiatzaren lehena eduki politiko eta sozialez beteta, "langileak eta herria burujabe, borrokatzeak merezi du" lelopean.

2.2. Interbentzio soziopolitikoak

Interbentzio soziopolitikoan gure partaidetza eta ekimen desberdinentzako gure babesa eta, gure soslai soziopolitikoko funtsezko gai izanik, administrazio desberdinen politika ekonomiko eta sozialei buruz egin eta landu dugunetik bereiztu behar ditugu.

Horren ildotik, azpimarratu behar dugu LABek bere jarrera politikoarekin eta mobilizazioekin, gure nazio eskubideak ukatzen dituen marko juridiko-politikoaren aitzindari izaten jarraitu duela eta, aldi berean, autodeterminazio eskubidea gatazkaren irtenbiderako akordioaren ardatza dela aldarrikatu duela, eta nazio, burujabetza eta aldaketa sozialeko estrategia batean indarrak bildu eta aktibatzea eskatu duela. Gogoetak, agitazio ekinaldiak eta proposamenak etengabe jorratu ditu LABek, ezker abertzalearen multzoaren erronka orokorretan konpromisoak hartuz.

Sindikatuak Madril eta Pariseko gobernuen ofentsiba errepresiboari emandako erantzuna ere gure jardueraren eta prozesu politikoaren bilakaerarekiko gure konpromisoaren beste ezaugarri bat izan da. Horrekin batera, sindikatuak euskal presoaren eskubideen aldeko bere ekintzari zentzuz eutsi dio, eta berak bakarrik zein beste erakunde sindikal batzuekin batera, espetxetik Euskal Herriaren alde borrokatzen diren gizon eta emakumeen aldeko elkartasun eta babes ekimenak antolatu ditu.

Lan Harremanetarako eta Babes Sozialeko Euskal Esparruaren beharra, marko juridiko-politiko berri baten atal modura, eta euskal jendartearen borondatearen errespetuari berez lotuta doalako, jendartean zabaltzeko, LABek mezuan eta ondoren esparru sindikalaren multzoan izandako hedapenean ikaragarri ondo asmatu zuen ekinaldia diseinatu zuen: Euskal Herrian lan eta bizi, bertan erabaki!. Nazio izaerako erreferentzia hau ondo txertatu da Ipar Euskal Herriaren testuinguru politikoak sindikatuaren esku hartzean eskatzen duen aldarrikapen soslaiari.

Ildo beretik, kontuan izanik Estatuak lan eta jendarte gaietako inposiziozko erreforma eta politikak behin eta berrizko kontua zirela, LABek Euskal Herrian jendarteko elkarriketa egiteko proposamena luzatu zuen, LHEE eratzeko arian ariko estrategia batekin lotuta, baina proposamenak ez du gehiengo sindikaleko gainerako erakundeen aldetik behar zuen harmenik izan. Gure iritziz, euskal sindikalismoak ezin du estatuko araudi edo dekretuei erantzuten aritu, Euskal Herrian sindikatu, administrazio eta enpresarien artean elkarriketa sozialeko eremu bat eratuz eta gorpuztuz joan behar dugu, gure herrian akordiorik iristeko modukoak diren eta akordio mailarik lortzea beharrezkoa duten gaietan. Oraingoz EAEn Confebasken errefusatzan duen eta ELAk nahikoa hausnartu eta baloratu ez duen proposamena izan arren, gure ustez Euskal Herriaren multzoan LHEEren bidean dagoen eragimenezko estrategiarako beharrezko izan jarraitzen du. Gure iritziz, sindikalismo abertzaleak bere jarrera eta eskaintza sozial eta ekonomiko birpentsatu beharko luke Nafarroan, UPN, CEN eta CCOO-UGTK ezartzen diguten apartheid hausteko. Era berean, gure sindikatuak ekonomia, jendarte eta lan alorretako proposamen bat ondo landu behar du, Lapurdi, Baxenafarroa eta Zuberoan instituzionalizatzeko dagoen eskariarekin lotuta.

2002ko ekainaren 19ko greba orokorra gertakari bakana izan zen sindikalismo abertzalearen LHEEren inguruko baterako ekintzan. "Dekretukadaren" aurka erantzun ez eze, deialdi hark Hegoalden euskal esparrua berriro finkatu zuen, eta ESKn kontraesanak azaleratu zituen, ordutik aurrera, estatuko sindikalismoaren lurraldetasunari buruzko jarrera klasikoetarantz bideratu delarik.

Ildo berean, Estatu Frantsesean mozketaren sozialak, hezkuntza politikaren eta pribatizatzaren aurka planteatutako greba orokorreari esker, LABek bertan parte hartu zuen eta, bide batez, Ipar Euskal Herrian gai sozialei helduko dieten erakundeak izan daitezkeen beharra aldarrikatu zuen.

Nolanahi ere, LHEEren aldarrikapenaren inguruan langileentzat barneratzen zaila den berbaldia dugula pentsatzen segitzen dugu. Ekimen zehatzetan eragimen gutxi duen berbaldia, langilearen segmentu garrantzitsu batentzat bat ere pedagogiarik gabea. Gainera, terminologia zaila erabiltzen dugu, langileek ulertzea eragozten duena. Egoera hau gainditu behar dugu zeren, Euskaldunako ekitaldia azkeneko erreferente gisa hartuta, gure proposamen eta mezuak langilearen gehiengo sozialaren erreferentzia bihurtu daitezkeen garaia baita.

Biltzarren arteko ziklo honetan, sindikatuak ahalegin handiak egin ditu globalizazio neoliberalaren aurkako borrokan indarrak batzeko eta herrien burujabetza politiko eta ekonomikoaren aldeko borroka berean lotzeko. LABen ekarpenak eta presentzia mundu mailako foro sozialetan –La Habana, Porto Alegre eta Bombai– eta Europa mailakoetan –Florentzia eta Paris–, Nizan, Bruselan, Miarritzen eta Bartzelonan Europaren eraikuntza ereduaren inguruan izandako mobilizazio eta orientazioetan, eta Euskal Herriko Foro Soziala eratzeko ekarpena, LABek globalizazio neoliberalaren aurkako erantzunetan eta bestelako mundu baten aldeko borrokan bat gatozeneko nazioarteko mugimendu sozial eta sindikaleko sektoreekin duen konpromisoaren isla zintzoa izan dira. Jarduera hori Euskal Herrian eta mundu osoan Iraken inbasioaren aurka egin diren mobilizazioekin lotu dugu. Emakumeen eskubideen aldeko, eta jendarte eredu justu eta paritarioaren aldeko borrokaren eta mobilizazioen esparruan ere, LABek emakumeen 1. Mundu Martxan parte hartu zuen eta Europako Bruselako hitzorduan izan zen.

Gai horiekin lotuta, Madril eta Parisgo gobernuen aldetik eta CCOO eta UGT bezalako sindikatuen aldetik beligerantzia ikaragarriko testuinguruan, nazioartean gure herriaren errealitatea azaltzeko eta jendarte demokratikoak eraikitzeko herrien eskubideak errespetatu behar direla azpimarratzeko egin dugun lana nabarmendu behar dugu. Ahalegin horren emaitzak datozen urteotan, Euskal Herrian irekiz doan ziklo politikoarekin batera, bilduko ditugulakoan gaude.

Kudeaketa txostena

2004ko maiatzaren 21 eta 22an. Iruñea

Atal honetan, LABek gai sozio-ekonomikoen gainean, herri eredu bat, euskal eremu sozio-ekonomikoa marraztuz joan behar dugun gaietan, duen protagonismoaren eta esku hartzearen inguruko argi-ilunak ere aipatu behar dira. Aurrera egin dugu estatuetatik ezarritako neurri eta politika neoliberalen gaineko gure analisisan, adibidez, Europatik pentsioen sistema publikoaz bultzatutako erreformaren gainean izandako nazio analisisan, zeini esker Babes Sozialeko Euskal Esparruaren oinarritzko zutabe den Pentsioen Euskal Sistema sortu eta artikulatzeari buruzko proposamen sindikala egiteko gogoetan aurrera egin dezakegun. Baina, egia ere bada erakundeak oro har gai horien gaineko gogoeta eta eztabaidak egiteko ahalmena galdu duela eta halakoak ondoren hedabideetan erabiltzeko azterlan eta txostenak egiten dituzten kabinete edo espezialisten eskuetan utzi dira. Erakundeetan oro har, militantzian, ez da aurrekontu politiken, zergen, osasun ereduaren, azpiegituren eta abarren gaineko barruko gogoetaren eta borroka ideologikoen garrantzia sustatu –enpresetan eta jendartean–, gai horiek, lehen esan bezala, sindikatuko berariazko koadroen irizpenera mugatu baitira.

Joera hori areagotu egin da azkeneko urteotan, erakundearen soslai soziopolitikoa, LAB enpresa eta jendartean aldaketa sozialaren subjektu gisa erreferente izatea pixka bat galdu delarik. Eta horrek gogor eragiten dio da erakundearen ereduari berari. Egiazta daiteke, hedabideetan dugun presentzia garrantzitsua den arren, badirudiela LAB "desagertzen" dela Euskal Herriko eskualde eta herrietan sortzen den edozein gai sozio-ekonomikoren aurrean, edo gutxienez ez dela zerga politikaren, etxebizitzaren, neurri sozialen eta abarren gaineko borroka ideologiko iraunkorra egiten ari. Horren haritik, sindikatuak, oro har, ez ditu nolabaiteko irismeneko borroka ideologikoa eratzeko gogoeta, eztabaida eta proposamenak modu egokian garatu, eta borroka ideologikoa, jakina, erakundearen eta militantziaren eginkizunaren tokia inoiz hartu ezingo duen hedabideetako jarduerarekin osatu beharko da.

Nolanahi ere, azken aldian politika sektorialen inguruko ekarpenekin egoera hori bideratu edo artezteko egiten ari garen lana bai nabarmendu nahiko genuke: finantzen alorrean, arrantzan, multinazionaletan, osasun ereduari, AHT, hezkuntza ereduari, etxebizitzan, ingurumenean, energian eta abar. Eta lan ildo horrek egiturak, militantziaren eta afiliatuen lanean agertu behar du.

Azkenik, garrantzitsua da LABek euskararen normalizazioan bai barrura begira bai jendartera begira egindako ahalegina. LAB sindikalismoak euskararen normalizazioaren inguruak konpromisoak har dituzan etengabe sustatzen ari da, eta duela gutxi ELArekin abian jarritako ekinaldiarekin eta Kontseiluarekin lortutako akordioarekin onerako urratsak egin dira. Bi gai horiek, hedabideetan izandako oihartzunaz gain, gure nazio hizkuntza lan munduan normalizatzeko lanean jarraitzeko pizgarri modura balio behar digute.

2.3. Ekintza sindikala

Kudeaketa Txosten honen lehenengo atalean esan dugunez, biltzarren arteko tartek aurrerapenak baino kezka gehiago eman dizkigu gure sindikatu eredu eta esku hartzearen garapenean.

Langileria desegituratzeko neurriek indarrean diraute mugimendu sindikaletik geldiratzeko itxurarik gabe. Langile finkoak lan baldintza bereiztuekin, prekariotasuna alde askotatik, birkontratzea bereizkeria nabariekin, lanak kanporatzea kosteak enpleguaren kalitatea murriztearen pentzuan merkatze-ko, sasi-autonomoak edo nork bere burua esplotatzeko mekanismoak bultzatzea, eta abar, daude eszenatokian, eta LAB ez da gai izan horien aurkako ekintza sindikalik finkatzeko, eta patronalaren eta administrazioen ofentsiba izugarri hori pairatzen diren kolektibo guztientzat egokia izan dadin negoziazio kolektiboko estrategiarik bideratzeko.

Gure ustez, LAB esku hartze sindikal zentzudunerako alternatibarik sendoena da oraindik orain, sindikatuko gizon eta emakume askok, sekzio sindikalek erakusten digutenez. Baina, esan behar dugu, halaber, hedabideetako berbaldiaren eta enpresetako praxiaren arteko banaketa ere, orokorrean, ikaragarri areagotu dela azkeneko lau urteotan, eta horrek Biltzar honetan LAB egun lantokietako klase norgehiagoka ezaugarritzen duten giltzarriei, prekariotasunari eta mota guztietako bereizkeriei, alegia, erantzun eraginkorra emateko benetako bitarteko modua koka dezaten gogoeta eta neurri zuzentzaileak garatzera behartzen gaitu.

Neurri zuzentzaileen beharra agerikoa da egiturek prekariotasunaren aurkako borroka aktibatzeke egindako ahalegin desberdinen emaitzen aurrean. Prekariotasuna, XXI. mendeko esklabotza ekinaldiaren balantzeak agerian utzi zuen gure sindikatuak egiturazko arazo hori lehentasuna ematearen alde egindako apustua baina, baita ekintza sindikal planifikatu eta etengabea aktibatzeke orduan aurkitutako zailtasunak ere.

Balantze honek ez dauka kontrapisu handirik, eta zintzotasun eta ardurazko ariketa dela uste dugu, inolako estaldura eta amarru erretorikorik gabe, LAB bezalako klase sindikatu soziopolitiko bat ezaugarritu behar duen handigura eta borrokarako gaitasunez, langileen gehiengoa eta, batez ere, emakumeak eta gazteak murgilduta daudeneko koordenada benetako eta objektiboentzako erantzuna kolektiboki barneratzera eramango gaituen diagnostikoan.

Garbi dago kontuan hartu beharreko faktore asko dagoela. Patronalaren harrokeria eta PSOEn eta PPren langileen aurkako erreformatik sortutako lege bitarteko ugariak, CCOO eta UGTren kudeaketa eta biziraupen hutseko sindikalismoarekiko lankidetzak, ELAk urte askotan garatutako sindikatu pedagogia eta kultura, eta abar, errealitatea dira, baina ez dugu errealitate hori gure inertziak eta mugak kontuan ez hartzeko jaurtitzeko arma modura erabili. Honetaz guztiaz Biltzarrean hitz egingo dugu, baina behartuta gaude, generikoki bada ere, kudeaketa txosten honetan aipatzera.

Hartara, bada, lantokietako gure esku hartzearen inguruko kezka da balantze honen ezaugarria, eta ez da balantzea bera azkeneko bi urteotan egindako ekintza batasunerako akordioen garapenari buruzko ikuspegi edo gogoetekin zerikusi handiagoa ala txikiagoa duten abagunearekin nahastu behar. Gure ekintza sindikalaren balantze kritikoa egin behar da eta patronalari eta administrazioei pixkana irabaziz joan dadin sindikalismo aldarrikapendun eta borrokalaria ahalbidetuko duten akordioak lortu behar dira.

Balantze honetan ontzat jo behar dira sindikatuak genero bereizkeriaren aurkako borrokan bai erakundearen barruan bai ekintza sindikalean egindako ahaleginak. Bi alde horietatik LAB aitzindaria da euskal mugimendu sindikalean, Aukera Berdintasunaren Planean gauzatutako estrategia abian jarriz, eta aurkeztu ditugun ekarpen desberdinetan. Gai horiek bulkada garrantzitsua jaso behar dute Biltzar honetan.

Antzeko hausnarketa egin genezake lan osasuna gure ekintza sindikalaren elementu garrantzitsu modura garatu eta arian-arian sartuz joateari dagokionez. Egia da laneko istripuetan hildakoen kopuru izugarriak ekimen zorrotzagoetara bultzatu behar gaituena, baina sindikatuak lau urte hauetan jendea sentsibilizatzeko eta prestatzeko egin dituen ahaleginak ere kontuan hartu behar dira.

Etorkinak pixkana gure egitasmo sindikalera sartzeak bizi duten esplotazio eta bazterkeria egoera hobeto ezagutzen lagundu digu, eta jendarteko beste erakunde batzuekin etorkinen eskubideen defentsan, besteak beste, euskal herritar izateko eskubidearen defentsan benetako ekintzak gauzatzeko izan dugun partaidetza ona izan dela esan behar dugu. Halako esparruan bere politika egiteko

aukerak ukatzeko zaizkion Euskal Herria bezalako herri txiki batentzat konplexua eta, aldi berean, irismen estrategiko handikoa den esku hartzeari heltzen ari gatzaizkio.

Ekintza sindikaleko balantze hau eginda, esan beharra dago ekonomia sozialaren gaia oraindik ere garatzeke eta interbentzio estrategiarik gabe dagoela. MCC taldearen zerbitzu sektorean antolakuntza dinamikak egin dira, kontratazio mota eta eredu dela eta; hala ere, sindikatua eta ezker abertzale osoak euskal kooperatibismoaren eremuan lan plangintzarik oraindik ere burutu ez dugu. Azken hila-beteotan, MCC taldean kooperatiba ereduaren egoerari buruzko eztabaida garrantzitsua egin da eta espero dugu, apurka, eztabaida honetan parte hartuz eta sindikatuaren interbentzio hutsune honi erantzunez joatea.

Ezin dugu aipatu gabe utzi gure ekintza sindikalarekin lotura zuzena duen gai bat: borroka kutxa. Biltzarren arteko tartean hasierako gogoeta garatu da eta, 6. Biltzar honetako ponentzian planteatzen denez, datozen hilotan erabaki bat hartu behar da.

Azkenik, jakinarazi behar dugu pentsiodunen antolakuntzaren lehenengo urratsak egin direla, gai horretako gure esku hartzea definitzeko eta gero eta ugariagoa den langileen kolektibo hori bultzatzeko, beren enpresetatik erretiratu arren, Euskal Herriaren burujabetze nazional eta sozialaren alde borrokan ari den klase subjektuaren parte baita.

3. Egitasmoaren hedapena eta antolakuntzaren garapena

3.1. Egitasmoaren hedapena

3.1.1. Sindikatu nazionala

Sindikatu Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan hedatzea oso aurrerapauso handia izan da LABentzat, horrela euskal nazio mailako lehenengo erakunde sindikala izatera iritsi baita. 2002ko abenduko hauteskundeetako emaitzekin finkatutako hedapen horrek Ipar Euskal Herrian sektore abertzale eta ezkertiar guztientzat esku hartze sindikal eta sozialerako antolakuntza bitartekoa finkatzea ekarri behar du. Mugimendu abertzaleari dimentsio soziala ematea belaunaldi berriak geureganatzeko kako estrategikoetako bat da, eta barruko aniztasuna eta ñabardurak onartuz, LABek Ipar Euskal Herrian antolakuntzazko erreferentzia modura sendotuz joan behar du.

3.1.1. Afiliazioa

	2000ko Apiri.	2000ko Aben.	2001eko Aben.	2002ko Aben.	2003ko Aben.	2004ko Apiri
Araba	3.060	3.219	3.499	3.717	3.935	3.939
Bizkaia	10.410	10.722	11.534	12.083	12.957	13.024
Gipuzkoa	10.277	10.587	11.144	11.801	12.333	12.429
Nafarroa	3.972	4.101	4.685	4.716	4.913	5.010
Iparralde			190	305	335	359
EH	27.719	28.629	31.052	32.622	34.473	34.761

2004ko apirilaren 30ean guztira zeuden afiliatuetatik 10.724 (%31) emakumeak ziren, eta 30 urtetik beherako gazteak 3.837 (%11).

Afiliazio koadro horrek hazkunde etengabe eta garrantzitsua erakusten digu. Nolanahi ere, hazkunde tarte handia daukagu LAB hauteskundeetara aurkeztu deneko enpresetan 65.000 botoen kopurua gainditzera heldu dela.

Berriro ere afiliazioak sindikatuaren garapen autonomikoan duen garrantzia baloratu behar da, eta gure bilakaera beste diru iturri batzuek (diru laguntzak) baldintza dezaten saihestu. Horren haritik, nabarmendu behar dugu lau urte hauetan erakundeak ahalegin handia egin duela gastuak eta diru sarrerak kontrolatzen, gure ekonomia osoa kontrolatzen eta, bereziki, LAB egitasmoaren ekonomia eta finantzazko autonomia bermatzen. Une hauetan, kuoten ondoriozko diru sarrerak sindikatuaren diru sarreren %80 dira, eta horri esker sindikatu arrazoi politikoengatik (diru laguntzarik ez zaigu ordaintzen, eta ondare sindikala ez da ia erabiltzen) pairatzen ari den bereizkeria estrategia guztiak gainditu ahal izan ditugu.

Horregatik, etorkizunera begira, afiliazioak sindikatuaren autonomiaren eta garapenaren berme gisa duen garrantzia azpimarratu behar dugu.

3.1.3. Ordezkaritza sindikala

Ipar Euskal Herrian, LABek, estreinako, proud'hommes hauteskundeetan ordezkaritza lortu du, %10etik gertuko boto portzentajearekin, eta hori ustekabeko emaitza, oso emaitza ona izan da.

2002ko bozkak

	CGT	CFDT	FO	LAB	CFTC	CGC	U.N.S.A,
Industria	1926	1864	954	521	257	191	191
Merkataritza	1810	1892	1181	489	474	194	310
Laborantza	47	257	107	50	13	11	41
Aktibitate anitza	1680	2540	1236	690	406	165	273
Koadroak	318	752	218	197	184	352	124
Orotara	5781	7305	3696	1947	1334	913	939
%	26,37	33,33	16,86	8,88	6,08	4,16	4,28

Kudeaketa txostena

2004ko maiatzaren 21 eta 22an. Iruñea

Hego Euskal Herriko datuei dagokienez, hona hemen 2000ko apiriletik 2004ko martxora bitarteko bilakaeraren datuak:

	2000		2004	
	Delegatuak	%	Delegatuak	%
Araba	322	11,19	362	10,71
Bizkaia	979	11,68	1153	12,26
Gipuzkoa	1416	24,41	1628	25,55
Nafarroa	676	13,03	721	11,76
Baskongadak	2717	15,92	3143	16,40
Hegoaldea	3393	15,25	3864	15,28

>50	2000		2004	
	Delegatuak	%	Delegatuak	%
Araba	211	12,41	229	11,76
Bizkaia	614	12,82	763	13,44
Gipuzkoa	830	25,33	988	26,91
Nafarroa	442	15,68	490	13,97
Baskongadak	1655	16,87	1980	17,53
Hegoaldea	2097	16,62	2470	16,68

<50	2000		2004	
	Delegatuak	%	Delegatuak	%
Araba	111	9,51	133	9,28
Bizkaia	365	10,28	390	10,46
Gipuzkoa	586	23,5	640	23,69
Nafarroa	234	9,89	231	8,81
Baskongadak	1062	14,75	1163	14,79
Hegoaldea	1296	13,54	1394	13,3

Sindikatuaren ordezkari-tza mailaren balantzeari dagokionez, datu orokor onak –oro har haziz jarraitzen dugu-, eta geraldia agerikoa deneko zenbait lurralde esparrutako –Araba eta Nafarroa- beste datu batzuekin nahasten dira.

LABek 3.864 ordezkari dauzka Hego Euskal Herrian, 2.867 gizon (%74,20) eta 997 emakume (%25,8), eta kopuru horiek gure sindikatuaren gailur historikoa dira. Datu hori oso bereziki hartu behar da kontuan, sindikatuak enpresetan ezartzeko zer-nolako testuinguru politikoan lan egin behar izan duen, baita, LABi ez bezala, diru laguntzen bidez eta ondare sindikalaren erabilpenaren bidez laguntzen zaien beste erakunde sindikal batzuen aldean diru eta pertsona baliabidetan dagoen tarte izugarri-ri ere aditzen badiegu.

Errealitate hori da LABek enpresa txikian hedapen handiagoa izan dezan oztopatzen duena. Baina gainera, honek emakumezkoen ordezkariak handitzeko helburua ere oztopatzen du, emakumerik gehien dauden enpresak txikiak baitira, hain zuzen ere. Eta datuetan ikusten denez, errealitate honek gure ordezkariak orokorra higitzen du. 50 langiletik gorako enpresetan LABen ordezkariak Hegoaldeko hirugarren indar sindikala eta EAEko bigarrena izatetik gertuko parametroetan dagoen bitartean, enpresa txikietako emaitzek ordezkariak maila hori murrizten digute.

Ordezkarietan aurrera egite hori oso garrantzitsua da, LAB egitasmoak zailtasun handiko politika eta, era berean, gure herrian irismen handiko lerrokadurak berreskuratzeko bidegurutze historiko bihurtutako abagunean duen sendotasunarengatik.

Hartara, bada, balantze honetan militante askok lanpostuetara heltzeko, langileekin hitz egiteko eta LAB enpresetan nortasunez eta erreferentzia gisa sar dadin lortzeko duten xinaurri lan nekez hori nabarmendu behar dugu.

Biltzarrari eskatzen diogu lan isil baina ezinbesteko hori bereziki gogoan izan dezan, bai gau bai etorkizunean, are gehiago produkzio ehunduraren bilakaera -zerbitzuen arloa gehitzea, industria enpresa handiak desagertzea...- eta ezaugarritzen duen enpresa atomizazioa kontuan badauzkagu.

3.2. Antolakuntzako garapena

3.2.1. Gogoeta orokorra

Antolakuntzako ereduaren bilakaeraren balantzea egiteko garaian, ez da erraz aurkitzen dauzkagun sententziak laburbil ditzan adjektiborik. Kursoarean partaidetzako zuzendaritzako ereduaren aldeko apustua egin genuen, baitan hartzen zituen eskualde, sektore eta arloen berritasunarekin, herrialde eta sektore egiturekin, nazio eta eskualde mailako antolaketa eremuekin eta sektoretako antolaketaaren sustapenarekin.

Lau urte geroago, eredu modura, apustua zuzena zela deritzogu, baina garapenean eta eragimenean desorekak eta disfuntzioak sortu direla, eta horiek kontuan hartu behar ditugu Biltzar honetan zuzentzeko.

Oro har, herrialde-sektore antolaketa ez da garatu eta, sindikatuaren organigraman sektoreen-azpi-sektoreen pisuak herrialde egitura, eskualde egitura konfederala ahuldu du, gure iritziz. Era berean, herrialdeka antolatu ez den sektore banaketa horrek lana esparru azpisektorialetan lanaren espezializazioa sustatu du, joera korporatibo garbiekin eta ez-integralekin.

Bestalde, antolakuntzaren bilakaeraren ikuspegi orokor batetik, prestakuntza ideologikoko plan eraginkorren garapenean eta esperientziaren transmisioan izandako akatsak nabarmendu behar ditugu. Akats edo gabezia horiek belaunaldizko berriztapen prozesuari eragiten diote, eta ez digute enpresetako eta, oro har, jendarteko gure jardura soziopolitikoaren eta sozioekonomikoaren ezaugarriak debalutzera jotzen duen desideologizazio gero eta handiagoa geldiarazten lagatzen.

Esan behar da belaunaldizko berriztapenak eta erakundeko egituretan emakumeak egoteak onera jo duela eta etorkizunerako gai garrantzitsuak direla.

3.2.2. Zuzendaritza

Planteatu zen zuzendaritza ereduak zuzen funtzionatu du, baina militantziak partaidetza handiagoa izan dezan sustatuko duten metodologiak hobetu behar dira. Hartara, bada, Nazio Biltzarraren, Nazio Komitearen eta Komite Exekutiboaren partaidetza eta eginkizunen mailaren antolaketa egokia da, gure iritziz.

Kontuan izan behar da, halaber, aurreko biltzarrean ekindako berriztapen garrantzitsua, eta horrek Nazio Komitearen eraketan eta dinamikan izan duen ondorea. Sakondu beharreko berriztapena da, norbanakoen eta taldeko ekarpenak Nazio Komitearen lan metodologiak eta dinamizazioa hobetzeaz batera finkatuz joango dena, Zuzendaritza organo izatera barik "koordinakunde" izatera jo dezan saihesteko.

Lehenengo erreferentzia honetatik, zuzendaritzaren jarduera Kudeaketa Txosten honen edukiak markatzen du, onean zein txarrean.

Komite Exekutiboak Biltzarraren aurretik arestian esandako eredu sindikalaren higaduraren inguruan beharrezkoak diren gogoeta eta lan ildoak bideratu ez dituelako dagokion erantzukizuna bere gain hartu behar du baina horri buruzko diagnostiko esku hartze egokirako baldintza politiko orokorrak ere aitortu behar dira.

3.2.3. Herrialde egiturak

Eskualde eta sektoreetan presentzia zuen zuzendaritza eredu berriak Nazio Komitean presentzia zuzena izanik esparru guztietan pisu politikoa eta esku hartzeko gaitasuna irabazi behar zuten eskualde mailako egituren finkapenaren aldeko apustua ekarri zuen.

Gure ustez eskualdeka banatzea eta zuzendaritzako presentzia neurri egokia dira. Hara, bada, eskualde egitura, bere esparruan, zuzendaritza politiko eta sindikaleko organo gisa finkatzeari dagokionez ez dira gogobetetzeko moduko kotak iritsi, eta zuzendaritzarekin lotura pasibo samarra duen eskualdeko Idazkari batek dinamizatutako jardueren koordinakunde gisa eratzeko joera duela erakutsi du.

Sektore-herrialdeka ez antolatzea izan da herrialde egitura finkatzea eragotzi duten eta batzuetan arduradun sektorial, azpisektorialen eta Eskualdeetako Idazkaritzetako kideen artean funtzionamendu sarritan anarkikoa izatea eragin duten faktoreetako bat.

Bestalde, ez da eskualdeen arteko koordinakunde herrialdeetako berariazko errealitate eta politikak baloratzeko baliatu, eta hori egiteko geratzen da, aldioro garatu beharrekoa baita, erakunde desberdinen politika ekonomiko eta sozialak aztertzeke.

3.2.4. Sektore egitura

Sektorekako antolaketaren sustapenak desoreka handiak izan ditu. Sektore batzuek bitarteko ugari eduki eta sektore-azpisektoreetan egitura eta funtzionamendu egokiak garatu dituzten bitartean, beste sektore batzuek ageriko defizitak izan dituzte, sindikatuaren hedapenean ondorioak izan dituztenak.

Bestalde, oso gauza erabakigarria ere aipatu behar da: sektoreen garapenak ez du herrialde egiture-

tarako ekarpenik egiteko eta lan sektoriala sindikatuan beharrezko esku hartze integralarekin ondo uztartzeko balio izan, alderantziz baizik, pertsona baliabide asko eta asko sektoreetara edo azpisektoreetara soilik mugatuta geratu dira, herrialde mailako egituretan inolako presentzia eta partaidetzarik gabe. Eta horrek sindikatuaren organigramaren multzoari balioa galarazten dio.

Gainontzean, sektoreka antolatzeko prozesuak ere sektore esparruan osoko esku hartzerik beren gain ez hartzeko eta egitura horiek, berariazko eskema sindikal batekin, gai orokor politiko edo sozioekonomikoak barruratu barik erabiltzeko joerak daudela adierazten digu.

Hartara, guk uste dugu sektoreka antolatzeko beharrak indarrean dirauela, baina egituren arteko benetako oreka bilatu behar dugu, eta sindikatuaren pertsona baliabideen kokapena eta lana zuzen neurtu behar ditugu.

Azkenik, sektorekako biltzarren prozesuek, kasurik gehienetan, ahalegin eta azpiegituretan dinamika neurrigabeak eskatu dituztenez, balio erantsi gutxi ekarri dute, gure ustez. Gure iritziz, Biltzar Konfederalak ildo politiko eta sindikal orokorrak finkatzen ditu eta, ondoren, Sektorekako Bilkurek diseinu arin eta eraginkorragoa izan behar dute, eztabaida eta gogoeta prozesuen inflaziorik izan ez dadin, kasurik gehienetan errepikatu besterik ez baitira egiten.

3.2.5. Atal sindikalak

Atal sindikalak herrialde eta sektore mailetako egituretatik aktibatzearen lehentasuna ez da egokiro bideratu.

Atal sindikalaren barruko eskuordetzeak eta sekzio sindikalak egituretatik dinamizatzeko eta komunikazio planik ez izateak, gero esku hartzen sindikal eta sozioekonomikoan nabaritzen diren ondorioak dakartzan funtzionamendua iraurarazten du.

Delegatuak sail sindikalaren dinamizatzailak izateko eta antolakuntza egiturekin lotura egiteko funtzioak ez dira garatu eta honek sindikatuaren enpresetako eta jendarteko oinarrian behar bezala ez funtzionatzea ekartzen du.

3.2.6. Arloak eta kabinetek

5. Biltzarrean planteatutako arlo eta kabineteei dagokienez, balantzea desberdina da.

Goraipatu behar da Emakumeen Idazkaritza Aukera Berdintasunen Planarekin egiten ari den lana, bai sindikatu barrurantz bai kanporako proposamen zein ekimenekin. Euskal sindikatuen mugimenduan erreferentzia den lana dugu. Honetaz gain, LAB-Emakumeak aktiboki hartzen du parte Euskal Herrian mugimendu feminista bultzatzen eta ezker abertzalearen prozesu feministan.

LAB-Gazteak-i dagokionez, gazteria beren beregi antolatzea behinenen zeneko hasierako fasetik sindikatuaren egituretan kokatzen eta ekarpen zuzenak egin ditzaten sustatzeko beste fase batera igaro gara. Beste gazte erakunde batzuekin sinatutako akordio estrategikoa ona da, eta sindikatuaren herrialde egituretatik, laneko prekariotasuna, eta etxebizitza bezalako gaietako lan sinbiosia bilatuz, eta gazteen mugimendua eta mugimendu sindikala uztartu behar diren tokian garatu behar da.

Kudeaketa txostena

2004ko maiatzaren 21 eta 22an. Iruñea

Langile etorkinen arazoei heltzeko beharrea egindako aurrerapenek eta pentsiodunen antolakuntza-ko lehenengo urratsek balantze honetan nabarmendu behar den garrantzia daukate, eta etorkizuneko plan handiguratsua behar dituzte, ondo garatuko badira.

EUSLAB egitasmoak aurrera segitzen du, sindikatuaren euskalduntze prozesuan eta euskara lan munduan normalizatzeko ekimenen sustapenean ondo eraginez. Bi gaiotan gure sindikatuak zalantzarik gabeko aitzindaritzak maila erakusten ari da.

Lan Osasuneko kabinetek ekintza sindikalaren alderdi hau oro har egokia den modura dinamizatu du. Gai honi dagokionez, enpresetan istripuen aurka eta, oro har, lan osasunaren alde garatzen dugun lana eta jorratzen ditugun erantzunak sindikatu mailan aztertu behar ditugu.

Kudeaketa txosten honetan sindikatuko ardura eta lan arlo guztietako jarduerari xehetasunez heldu nahi ez zaion arren, Iraultzenen finkapena, web orrialdea abian jartzea eta sindikatuaren barruko komunikazioan teknologia berrien erabilpenerako jauzia egin izana ere aipatu behar direla uste dugu.

4. Balorazio orokorra

Arestian esandako guztiarekin, balorazio orokorrean, batetik, gogoeta onak daude eta, bestetik, ondo garatu ez diren gaiak ere islatzen dira.

Guk uste dugu sindikatuaren zuzendaritzak kudeaketa txosten argia aurkeztu duela eta bere erantzukizunak onartzen dituela eta, hori, berez, gauza ona da. Sarritan, ondo egin dena esatea bezain garrantzitsua zuzendu edo aldatu behar diren gauzez ohartzea da.

6. Biltzar honi bere nortasun estrategikoko, jarrera politikoko eta eredu sindikaleko ikurretan finkatutako erakundearekin ekingo diogu. Hedatu eta garatzeko behar beste azpiegitura eta bitarteko dituen erakundearekin. Azken batean, gora doan egitasmo sindikala da gurea, nortasuneko eta erreferentziakoa euskal mugimendu sindikalean eta etorkizunerako ahalmen handikoa.

Biltzarrean ahalegin berezia egin beharko dugu gure ekintza sindikala sendotzen, gure elkarriketarako gaitasuna areagotzen, eta patronalaren aurrean indar korrelazioa gureganatzen. Gazteriak eta emakume langileek pairatzen dituzten arazoen aurrean berezko distira izan dezan ekintza sindikala sustatu behar dugu. Gure sindikatuak, independentziarako eta jendarteko gehiengo langilearen zerbitzurako euskal nortasuneko sozialismorako bidean, aldaketa politiko eta sozialeko eragile gisa duen protagonismoa barneratu behar du.

Kudeaketa txostena

20